**11/2014 UDALEKO OSOKO BILKURA**

**2014KO ABENDUAREN 29AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUTAKOAK:**

**ALKATEA:**
Pedro Mª Estanga Lasa

**ZINEGOTZIAK:**

Izaskun Jáuregui Saizar
Aitor Gurrutxaga Aranzasti
Maialen San Sebastian Kortajarena
Mikel Ayerbe Gallurralde
Kepa De la Iglesia Sánchez
Mª Carmen Egurza Salaberria

**IDAZKARIA:**
Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2014ko abenduaren 29an arratsaldeko seiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro Mª Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; Aratz Luisa Urkola eta Josune Eizmendi Manterola zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

**1.- 2014KO AZAROAREN 14EAN OSPATURIKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2014ko azaroaren 14ean ospaturiko bi bilkuren aktak irakurri eta aho batez onartuak izan dira.

**2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2014KO URRIAREN 16TIK ABENDUAREN 15A BITARTE, 470 ZENBAKITIK 574 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.**

2014ko urriaren 16tik abenduaren 15a bitarte,, 470 zenbakitik 574 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

EAJ talde politikoaren bozemailea den Kepa De la Iglesia Sánchezek 497 eta 533 dekretuei buruzko informazioa eskatu du, ordezko lan-kontratudun langileen kontratazioari buruzko dekretuak hain zuzen ere. Adierazi du bi dekretuetan pertsona bera kontratatu dela, eta galdetu du ez ote dagoen lan-poltsarik.

Alkateak erantzun dio badagoela lan-poltsa bat. Lan-poltsa hori ordezkapenetarako erabili izan dela, baina aztertzeko gai bat dela; datorren urterako hainbat lan-poltsa sortu beharko direla: obretako lantalderako, eraikinen garbiketarako, e.a.

**3.- ALKATEAREN ORDAINSARIA EGUNERATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkateak EH Bildu udal-taldearen proposamena aurkeztu du alkatearen ordainsariari buruzkoa. Honela dio:

*“PROPOSAMENA: ORDAINSARIA.- Alkatetza hartzeko garaian EH Bildu taldeak udaleko lan karga aztertu ondoren, alkatea lanaldi osoan aritzeko erabakia hartu zuen.*
*Udalaren egoera ekonomikoa kontutan hartuta, 2012ko urtarrilean 2.200 euroko ordainsari gordina proposamena onartu zen, bereziki alkateak horrela eskatuta.*
*Aurreko erabakia hartzeko kontuan hartu ziren aldagaiak aztertu ondoren, batez ere udaleko egoera ekonomikoa eta alkatearen lan karga, eta lan ordutegiak zeintzuk diren aintzat hartuta, Anoetako EH Bilduko udal taldeak proposatzen du Alkatearen ordainsari gordina 2500 eurokoa izatea”.*

Hitza hartu du EAJ talde politikoko bozemailea den Kepa De la Iglesia Sánchez zinegotziak eta hauxe esan du:

1.- Gai horri buruz lehen ere eman dutela iritzia, eta uste dutela Anoetako alkatearen dedikazioa %50ekoa izan behar duela.

2.- Udaleko langileek soldata izoztuta dutela eta ez zaiola normala iruditzen alkatearen soldata %13,6an igotzea proposatzea.

Alkateak erantzun dio, 2011ko amaieran egindako Osoko Bilkuran alkatearen ordainsariari buruzko gaia aztertu zenean, ordainsari hori finkatu zela Udalak momentu hartan zuen egoera ekonomikoaren arabera: ordainsari hori txikia zela (2200 euro hilean) nahiz eta erabateko dedikazioari zegokiona izan.

Alkatearen dedikazioari dagokionez, adierazi du bere taldeak uste duela Anoetako Udalean ezin dela lanaldi osoa baino dedikazio txikiagoa izan, eta, bere esperientzia kontuan izanda, dedikazio hori defendatuko duela.

EAJ talde politikoko bozemailea den Kepa De la Iglesia Sánchez zinegotziak adierazi du, alkatearen proposamenarekin aurrera jarraituz gero, bere taldeak aurka bozkatuko duela:

-Lehenik, aipatutako proposamenaren dedikazioa %50ekoa izan behar duelako, eta ez %100ekoa.

-Bigarrenik, Udaleko langileen soldatak izoztuta daudelako eta datorren ekitaldian ere izoztuta jarraituko dutelako.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du bozkatzeko: **2015eko ekitaldirako, hilean 2500 €-ko ordainsaria finkatzea, 14 pagatan, eta lanaldi osoko dedikazioarekin**.

Aldeko botoak: BOST (Bildu talde politikoarenak)
Aurkako botoak: BI (EAJ talde politikoarenak)
Abstentzioak: BAT ERE EZ

Bozketaren emaitza ikusita, alkateak aurkeztutako proposamena onartu da.

**4.- GOITU ERAIKUNTZAK, S.L ENPRESARI BEHIN-BEHINEAN ESLEITZEA LASARBE 1EKO KULTUR JARDUERETARAKO LOKALA EGOKITZEKO OBRAK.**

Aztertu da Lasarbe 1eko kultur jardueretarako lokal bat egokitzeko obrak kontratatzeko bideratutako espedientea.

Udaleko aparejadorearen txostenean adierazten da eskaintzarik onuragarriena, orokorrean, Goitu Eraikuntzak, S.L enpresak egindakoa dela, betiere Administrazio-baldintza Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

Bertaratu direnek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Balioetsi publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez tramitatutako lizitazioa.
Bigarrena.- Goitu Eraikuntzak, S.L enpresari esleitzea "Lasarbe kaleko lokal baten kultur-gunerako egokitzapena" proiektuaren obrak egikaritzea prozedura zuzendu duten honako hauei lotuta: aurkeztutako eskaintzari, Administrazio-baldintza Partikularren Agiriari, Baldintza Teknikoen Agiriari eta exekuzio proiektuari. Baldintza hauetan esleituko zaio:

1.- Prezioa: 182.461,33 € (150.794,49 + BEZ 31.666,84€)
2. Egikaritzeko epea: 8 aste

Hirugarrena.- Esleipendunak 10 laneguneko epean aurkeztu beharko ditu udaletxeko bulegoetan honako agiriak, akordio honen jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuko duen agiria.
- Aurtengo Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta hartu izanaren agiria, edo azken ordainagiria; eta osatu egingo da aipatutako zergaren matrikulan baja hartu ez izana aitortzen duena agiriarekin.
-
- Behin betiko bermea aurkeztea egiaztatuko duena giria. Kopurua hau izango da:7.539,72 €.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Pedro Mª Estanga Lasa alkate jaunari edo legez ordezkatuko duenari kontratua eta akordio hau betetzeko beharrezkoak diren beste agiri publiko nahiz pribatu guztiak formalizatzeko.

## 5.- BPXPORTERI ORDAINKETA

Ikusi ditugu Anoetako Udal Kiroldegiko likidazio-egoeraren auditoretza espedienteak, Betean Auditoría, S.L.P enpresak eginak, honako aldietarako:

- 2010eko apirilaren 1etik 2011ko martxoaren 31ra
- 2011ko apirilaren 1etik 2012ko martxoaren 31ra
- 2012ko apirilaren 1etik abenduaren 31ra
- 2013ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra

Ikusi dugu Oscar Padura Unanue udaleko abokatu aholkulariaren txostena.

Eztabaida luze baten ondoren, bertaratutakoek aho batez erabaki dute honakoa:

Lehena.- Oscar Padura abokatu aholkulariak eginiko txostena onartzea. Eta honela dio:
***"AL AYUNTAMIENTO DE ANOETA.-*** *Con fecha 11 de diciembre del presente año, ha tenido entrada en el registro municipal un escrito presentado por "BPX Port Kirol Zerbitzuak" por el cual solicita que el Ayuntamiento " ...proceda al abono a la sociedad "BXPORT KIROL ELKARTEA ZERBITZUAK S.L. de la cantidad de 308.067,77 €, más sus correspondientes intereses como pago de la parte pendiente que dicha sociedad debió de ingresar, y ese Ayuntamiento pagar, como aportación municipal al equilibrio económico de la prestación del Contrato de Gestión Integral del Polideportivo Municipal de Anoeta, durante los periodos correspondientes a los ejercicios comprendidos entre abril de 2010 y 31 de marzo de 2013".*

*Indicar como el antedicho escrito hace referencia tambien, en su punto primero, a que, según la mercantil, las auditorias practicadas por la empresa "Betean" sobre las liquidaciones y gastos de los periodos de prestación del servicio de gestión del Polideportivo entre el 1 de abril de 2010 y el 31 de marzo de 2013 señalan como el Ayuntamiento de Anoeta adeuda a la mercantil la cantidad de 308.067,77€, más sus correspondientes intereses, cuyo importe habrá de determinarse en atención a la fecha en la que se haga efectivo el pago de la deuda municipal. En el punto segundo y último de su escrito, la mercantil procede a elaborar un cuadro con la justificación de la supuesta deuda existente por parte del Ayuntamiento.*

*Por el Ayuntamiento de Anoeta se procede a darme traslado del mismo a efectos de realizar informe sobre el requerimiento instado por la mercantil, cosa que efectúo sobre la base de los siguientes argumentos:*

***Primero.-*** *Indicar, en primer lugar y en consonancia con lo señalado con otro escrito elaborado por el letrado que suscribe, de fecha 5 de septiembre del presente año, en respuesta a escrito anterior de "Bxport Kirol Zerbitzuak", como en dichas auditorias se señala, en su punto I.2., como "los procedimientos de control establecidos por la sociedad que afectan a la operatividad de los ingresos recogidos en el Estado de Liquidación adjunto (Aptdo. II.2), no son suficientes para permitirnos expresar una opinión acerca de la integridad de los mismos". Dicha afirmación pone de manifiesto, una vez más, la imposibilidad de conocer de forma real y fehaciente los ingresos/recaudación obtenidos por Bpxport de la gestión del polideportivo (alquiler de pistas y campo; cuotas de socios; cuotas de cursos; entradas, aportación del Ayuntamiento), elemento este que condiciona cualquier liquidación a realizar. Es más, el Ayuntamiento considera falto de toda*

*lógica la disparidad de ingresos/recaudación señalados por Bpxport en distintas anualidades por servicios del polideportivo (alquileres, cuotas, cursillos…etc.), dándose, por ejemplo, periodos como el de abril de 2010 a marzo del 2011 en que dichos ingresos/recaudacion fueron de 49.978,92€ frente a los 78733,55€ del periodo de abril de 2011 a marzo de 2012, siendo el número de personas y de cursillo similares. En otros periodos los ingresos/recaudación han sido incluso menores frente a los 77.128,56€ que ha recaudado el Ayuntamiento en este año 2014 con la gestión directa del mismo.*

***Segundo**.- En relación los ingresos sobre las aportaciones efectuadas por el Ayuntamiento para el equilibrio económico del contrato de Gestión Integral del Polideportivo Municipal durante los periodos señalados, los mismos no estaban correctamente señalados en las auditorías practicadas, cuestión está que fue respondida mediante escrito dirigido a Bpxport con fecha 5 de septiembre. La respuesta municipal ha sido tácitamente aceptada por la mercantil al coincidir los números señalados por el Ayuntamiento como aportación municipal al equilibrio del servicio con los reflejados por Bpxport en su escrito de fecha 11 de diciembre, en su apartado "pagado" del cuadro de justificación del importe de deuda.*

***Tercero**.- Con relación a las liquidaciones practicadas por Bpxport en su escrito, esta representación discrepa nuevamente, tal y como lo ha venido haciendo hasta la fecha, sobre la forma en que se realiza la misma por su incorrecto proceder, ajeno no solo a lo establecido en el contrato y pliego de cláusulas administrativas particulares y prescripciones técnicas firmadas en su día, sino también alejándose de lo establecido en liquidaciones practicadas por la empresa "Betean".*

*Así, con relación a los diferentes periodos, las liquidaciones que realiza el Ayuntamiento son las siguientes:*

- ***PERIODO ABRIL 2010 A 31 MARZO DE 2011***
  - *Gasto (aceptado por Ayto y Betean)………..210.448,30€*
  - *Ingresos (88.706,15 (abono del ayuntamiento)) + 49.978,92 (recaudación de Bpxport)…………………… 136.685,07€*
  - *Gastos – recaudación bpxport = 73.763,08 a abonar por el Ayuntamiento.*

*En la sesión ordinaria del pleno municipal de fecha 27 de marzo de 2013, se procedió a aprobar la "Dación de cuenta del informe elaborado por vetean auditoria relativo a la liquidación del polideportivo, correspondiente al periodo comprendido entre el 1 de abril de 2009 y el 31 de marzo de 201º y aprobación de la propuesta de adjudicación de una nueva auditoría para el 2º periodo anual". Fruto de dicha liquidación, el Ayuntamiento pleno aceptó la existencia de una recaudación superior de Bpxport frente a los gastos, por un importe de 9.145,15 a favor del Ayuntamiento.*

*En esa misma sesión plenaria, y una vez inventariados los muebles del polideportivo municipal el 15 de diciembre de 2013, se constató la falta de determinados bienes por valor de 5.479,50€, acordándose solicitar a la empresa Bpxport la entrega al Ayuntamiento de los mismos.*

*Dicha empresa devolvió uno de los bienes, no así el otro, solicitando, mediante escrito de 19 de diciembre de 2011, se descontase su valor, 2.677,50€, en la próxima liquidación.*

*Por tanto, a la antedicha suma hay que descontar los 9.145,15€ más los 2.677,50€*

***Liquidación total: 73.763,08 – 9.145,15 – 2.677,50= 61.940,43€ a abonar por el Ayuntamiento por este periodo***

- ***PERIODO ABRIL 2011 A MARZO DE 2012***
  - *Gasto (aceptado por Ayto. y Betean)………… 205.834,24*
  - *Ingreso (103.911,41 (abono del Ayto.) + 78733,59 (recaudacion Bpxport))…………………………………….. 182.645€*
  - *Gastos – recaudación bpxport= 205.834,24-182.645=* ***23.189,24 a abonar por el Ayuntamiento por este periodo.***
- ***PERIODO 1 ABRIL A 31 DE DICIEMBRE DE 2012***

  *-Gastos (aceptado por Ayto. y Betean)…………. 157.335,35€*
  - *Ingresos 50.000 (abono del Ayto.) + 30.881,26 (recaudación Bpxport)……..………………………………… 80.881,26€*
  - *Gastos – recaudación bpxport= 157.335,35€ - 80.881,26€ =* ***76.454,09€ a abonar por el Ayuntamiento en este periodo.***
- ***PERIODO 1 DE ENERO A 31 DE MARZO DE 2013***
  - *Gastos (aceptado por Ayto y Betean)………… 71.389,44€*
  - *Ingresos 89.500€ (abono del Ayto) + 20.511,25 (recaudacion bpxport.)…………………………………… 110.011,25€*
  - *Gastos – recaudación bpxport = 71.389,44€ - 110.011,25=* ***38.621,81€ a abonar al Ayuntamiento.***

***Liquidación total de los periodos antedichos = 61.940,43 + 23.189,24 + 76.454,09 – 38.621,81= 122.961,95 a abonar por el Ayuntamiento a BpxPort por los periodos descritos.***

***Cuarto****.- Por su parte, con relación al pago del I.V.A señalado en el escrito presentado, nos remitimos a la consulta efectuada a la Hacienda Foral de Gipuzkoa a instancias municipales ante la disparidad de criterios existentes entre Bxport y la Administración con relación al I.V.A.. Dicha respuesta refrendaba la interpretación hecha por esta administración, viniendo a señalar, y así es admitido también por la actora en las conclusiones de uno de sus pleitos, que “La Excma. Diputación*

*Foral de Gipuzkoa ha venido a determinar que la relación entre mi representada y el Ayuntamiento demandado no se encuentra sujeta al IVA.*

*Dicho impuesto debe recaer en las tarifas aplicables a los usuarios, estando mi representada obligada a realizar su devengo y abono a la Hacienda Foral".*

*Lo que someto a otro informe mejor basado en derecho en Donostia a 29 de diciembre de 2014.- Ldo. Oscar Padura".*

Bigarrena.- 122.961,95 €-ko gastua onartzea eta BPXport Kirol Elkarte Zerbitzua S.L enpresari ordaintzea, aurreko atalean transkribatutako txostenean aipatu diren aldien erabateko likidazio modura.

**6.- KOTXE BERRI BAT EROSTEKO, KREDITU ALDAKETA**

Alkateak Zerbitzu Anitzetako Ofizialak aurkeztutako idatzi hau irakurri du:
*"Gaur egun eta 2000 urtearen geroztik peoi bat dut nere kargu eta udal ibilgailu bakarra biontzat herrian zenbait lan egiteko. Ni alde batera eta bestera ibiltzen naiz egun osoan zehar eta kotxea behar beharrezkoa dut ñire lanerako. Orain arte, ahal izan dugun moduan konpondu gara, gehienYtan peoiak bere furgoneta partikularra erabiliz. Askotan ordu asko galdu izan ditugu bai fyatak eta bai besteak. Gaur egun, furgoneta aldatu du eta hemendik aurrera udaleko lanak egiteko ez duela erabiliko adierazi dit.- Hau guztiagatik; Alkateari proposatu nahi diot, furgoneta edo kamioi txiki bat erostea gure lana aurrera eraman ahal izateko, bata besteari zain egon gabe.- Nere eskaria kontutan izango duzulakoan.- Anoeta, 2014ko abenduak 3.-Juanjo ".*

Halber, adierazi du Arrizabal, S.L. enpresak eskaintza egin diola Udalari honako ibilgailu hau erosteko, 2014ko abenduaren 31n eskuratu beharko litzatekeena:

Modeloa: Mini kamioneta DFSK K01H Pick Up kaxa
finkoarekin Aukerak: aire girotua izatea.

Guztira 10.075,00 euro lirateke (9.595,00 ibilgailuak + 480,00 aire girotuak) + BEZ; eta 700,00 euroko beherapena egingo lukete udalak kalea garbitzeko duen makina beraiei emanez gero. Makina honek urte asko daramatza erabili gabe eta ez dago erabiltzeko asmorik.

Aurreikuspen hau ez dago jasota indarrean dauden Aurrekontuetan, beraz, beharrezkoa da dagokion Kreditu Aldaketa onartzea. Horren tramitazioa egitea agindu zitzaion idazkari kontu-hartzaileari.

Kreditu Aldaketa espedientea ikusi da, Kreditu Gaikuntza erregimenaren arabera bideratu dena 12.254,00 euroko guztizko kopuruagatik.

Kontuan izan da espedienteei gehitu zaizkien eranskinetan jasotzen diren aurreikusitako sarrera berriak eta handienak direla araudi aplikagarrian berariaz aipatutakoak, eta proposatutako gehikuntzak erabat finantzatzen dituztela.

Idazkari kontu-hartzailearen aldeko txostenak ikusi dira.

Ikusita 2014ko azaroaren 24ko Osoko Bilkuran onartutako Kreditu Aldaketen Espedienteen tramitazioa bukatzeko dagoela gaurko egunean,

Bertaratutako guztiek aho batez erabaki dute honako hau:

Lehena.- 2/2014 zenbakia duen Kreditu Aldaketaren espedientea zabaltzea, **Kreditu Gaikuntza** erregimenaren arabera bideratu dena **12.254,00** euroko guztizko kopuruagatik, eta 2014ko azaroaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zena.

Bigarrena.- Aldaketa hau gehitzea (12.254 euro) aurreko atalean aipatutako espedienteari, eta espediente bakarra tramitatzea.

Hirugarrena- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea,

## 7.- GALDE-ERREGUAK

Alkate jaunak jakinarazi du zabor bilketa sisteman nahikoa problema badagoela, herritar batzuk ez dutela behar bezala birziklatzen, eta EAJ taldekoei galdetu die ea zein izango litzatekeen beraien ustez zabor bilketa egiteko sistema egokia; hauen erantzuna bostgarren edukinontzia jartzearena izan da.

Eztabaida luze baten ondoren, alkate jaunak adierazi du, zenbait bizilagunek gaika ez birziklatzeak udalari, gutxigorabehera, 12.000 euroko gainkargua suposatzen diola.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpirak eta laurden direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.